



2019/02/13

KULTURA

(H)ilbeltza bekak fruituak eman ditu Miel A. Elustondoren lehen eleberrian

Baztango nobela beltzaren astearen baitan martxan jarri zuten bekari esker idatzi du Miel A. Elustondo kazetariak «Kezko bola batek itoak birikak» eleberria. Nafarroatik Guatemalara, eta Guatemalatik Nafarroara mugitzen diren pertsoniak dira protagonistak. Nobela beltza izanik, gertaera ilunak dira istorioari tira egiten diotenak.

NAGORE BELASTEGI | DONOSTIA


INPRIMATU

BIDALI




Baztanen ospatzen den nobela beltzaren astea da (H)ilbeltza. Irakurle klub batetik sortutako ekimena izaten hasi zena handituz eta zabalduz joan zen, eta idazleek generoko sorkuntzak egin ditzaten beka bat ere sortu zuten Txalaparta argitaletxearekin elkarlanean.

PUBLICIDAD



GOLPE A GARA



Un reto de 10.000 suscripciones para atajar la deuda y poder avanzar



«Limitarnos al cierre era reproducir los traumas y las soluciones del pasado»



La mano tramposa de Garzón meció la decisión de la Seguridad Social



Click: Breve cronología 1998-2019



PUBLICITATEA

Bekaren lehen edizioa irabazlea Miel A. Elustondo izan zen, eta atzo aurkeztu zuen bere fruitua. "Kezko bola batek itoak birrikak" da sortu duen nobela. Ez da bere lehen liburua, baina bai bere lehen eleberria. Garazi Arrula Txalapartako editoreak istorioa kokatu zuen idazleari berari hitza eman aurretik. Kontatu zuen Guatemala eta Baztan harremanetan jartzen dituen istorioa dela, eta ustelkeria eta gertakari ilunetan murgiltzen dela. Izan ere, gertaera horiek benetakoak izan ez arren, errealtatearekin identifikagarriak dira. «Testuinguru sozialak sorkuntzan eragina dauka, batez ere literatura beltzean», aipatu zuen gaineratzeko Elustondoren testuan argi gelditzen dela «beltza kolore askoren nahasketa dela». Era berean, eleberri hau posible egin duen bekaren sustatzaileetako bat izanik, hirugarren edizioa martxan dagoela gogoratu zuen.

Ondoren Elustondok berak hartu zuen hitza. Urduri zegoela onarturik, berarentzat liburua idaztea zer izan den azaldu zuen. Jim Thompson estatubatuarren hainbat liburu itzultzea egokitu zitzaion eta (H)ilbeltzara gonbidatu zuten hura aurkeztera. Gerora, beka sortu zutenean animatu egin zuten parte hartzera eta animatu egin zen. «Hiru astetan pare bat hari idatzi nituen», argitu zuen. Orduantxe 1959an frantziskotarrek Habanan egin zuten ibilbidea ikertzen ari zen, eta hori testuan islatu zuen. «Handik hiru hilabetera deia jaso nuen, gero estutasuna hasierako proiektu horretatik abiatu behar nintzelako». Pixkanaka eleberria osatuz joan zen. Garai hartan bere kazetari jardunetan Lolita Chavez Guatemalako militantea elkarrizketatzea egokitu zitzaion. «Barruraino sartu zitzaidan eta liburuan sartu nuen, mozorrotuta», esan zuen.

Emakumea eta sikarioa

Idea horretatik abiatuta gorabeherak izan zituen. Batzuetan azkarrago idazten zuen, beste batzuetan atzera egiten zuen. Azkenean, eleberria garaiz entregatu zuen. Gerora testua zuzendu bai, baina ez du osorik berriro irakurri: «Ez dakit nola den hasiera. Gogoan daukat, hala ere, asmatu dudala besteren aginduz ari den emakume bat Guatemalara joan dela, sikario bila. Eta ekarri ere egin duela, Nafarroara, lan narrasen bat modu garbian egitera. Gogoan daukat emakume horrek eta sikario horrek markatzen dutela nobelaren hari nagusia, eta tartean beste zenbait istorio ere badirela».

Eleberria Baztango euskara erabili duela argitu zuen, Frantzisko Laphitz, Pello Salaburu, Mariano Izeta eta Maite Lakarren laguntzari esker.

Badago mundu bat



HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

AZKENAK



naiz: [@naiz_info](#)

La OSE y Malandain Ballet Biarritz aúnan sus fuerzas con «Marie-Antoinette»
[naiz.eus/eu/hemeroteca/...](#) @Belastegi



4m

naiz: Retweeted

naiz: [@naizplus](#)

Egun on!
♥ Gaur Balentin egunean, maitasunaren inguruko hausnarketa eragin asmoa duen
[@PotxuakMartxan](#)-en pankarta ekarri dugu gogora!
♥

